

# ARANA MARTIXA: “LIBURUEKIN ZERIKUSIA DUTEN ARLO GUZTIETAN IBILIA NAIZ”

“Pozik, oso pozik”. Horrela agertu zen Jose Antonio Arana Martixa irailaren 28an, Akademiaren egoitzan egin zen ekitaldian: “50 urte luze pasatu ditut liburu artean. Eta gaur bizitzaren zati eder horri amaiera ematen diot. Ikusten dudana da lehen etxean neukana eta niretzako bakarrik balio zuena, orain Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekan jarriz gero, nik daukadan apur horrek edonori informazioa emateko ere balio duela. Beraz, herriaren eta euskararen aldeko ekarpena da nirea”.

Jose Antonio Arana Martixak bere liburutegi pertsonala eman dio Euskaltzaindiari, hots, urte askoren buruan osatu duen lan-biblioteka, bere lanak egiteko baliatu dituen liburuak eta argitalpenak biltzen dituena. Gaiei dagokienez, denetarik aurki daiteke, besteak beste, hizkuntza, historia, zuzenbidea, musika, folklorea edota etnologia. Arana Martixak gehien maite dituen autoreak, Luis Luziano Bonaparte eta Resurreccion Maria Azkue alegia, liburutegi horretan daude.

Arana Martixa “bibliomanoa” izan da, baita -berak dioen bezala- bibliografoa, bibliofiloa ere... 50 urte bete ditu liburu artean: “14 urte nituela hasi nintzen ikasten Aretako Seminarioan eta orduan Andres Ibañez Arana latinezko irakasleari lagundu nion hango biblioteka antolatzen. Gero, Gasteizko Seminariora joan nintzen eta horko bibliotekan ere ibili nintzen, Andres Mañarikuarekin. Orduetik hona begira zenbat denbora pasatu den eta beti liburu artean ibili naiz. Hemen -Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekan- bibliotekarioa izan naiz... Nik uste dut liburuekin zerikusia duten arlo guztietan ibilia naizela”.

## **Bi liburutegi eta bi artxibo**

50 urte horietan Arana Martixak bi liburutegi eta bi artxibo osatu ditu. Liburutegia eta ez biblioteka, “nik bereizten ditudalako bi terminoak: biblioteka publikoa da, Azkue Biblioteka, adibidez; eta liburutegia partikularra. Kasu honetan -argitzen du- nire liburutegia ekarri dut Azkue Bibliotekara”.

Bi liburutegi, beraz, “bat orokorra da, gai guztietakoa: euskara, etnografia, euskal kultura... denetarik biltzen duena; Euskal Herriari eta munduari begira dagoen biblioteka. Eta bestea berezia, musikari buruzkoa. Hori ere dohaintzan eman dut, Eresbil-i (Musikaren Euskal Artxiboa) eman diot”.

Artxiboei dagokienez ere bi dira. Bata musikari eskainia, partiturek eta musikari buruzko idazkiek osatzen dutena. Bigarren artxiboan, aldiz, mota guztietako paperak, dokumentuak, txostenak, gutunak... daude eta hori guztia antolatzen dihardu Arana Martixak. “Gero -gaineratzen du- 200 bat zinta ditut, nik grabatuak, eta horiek guztiak entzun behar ditut, jakiteko zer dudan”.

Bonaparte eta Azkue, Azkue eta Bonaparte. Horiek dira Jose Antonio Arana Martixaren gogokoenak. “Euskara eta musika, beraz -azaltzen du- Azkuek ere musikari buruz idatzi baitzuen. Hala eta guztiz ere, musika munduan sartuko banintz, gehien maite dudan autorea Aita Donostia dela esan beharko nuke. Niretzat bera da euskal musikaririk handiena”.

Bakean bizitzeko gogoz dabilela dio. Hori bai, “niretzako, bakea norberaren gustukoa egitea da”. Hala, Azkue Bibliotekako zerbitzuek katalogazio lanak amaitzen dituztenean, “eskuartean ditudan lanak amaitzeko behar ditudan liburuak eramango ditut etxera. Eta bukatzerakoan, hona ekarriko ditut berriro. Uste dut bost urtetarako lana izango dudala”.

Oraingoz, beraz, libururik ez dago Arana Martixaren etxean. Gustura dago, baina. “Liburu barik ondo bizi daiteke -dio-, hori bai, 76 urte bete dituzunean, lehenago ez. Irakurri behar da eta gauzak dokumentatu egin behar dira, ikerlanean behintzat beharrezkoak dira liburuak, bai informazioa hartzeko baita dokumentatzeko ere. Eta euskarari dagokionetik, euskaraz idazteko, euskara menderatzeko, derrigorrezkoak dira liburuak. Bidea aurretik markatu dutenak irakurri behar dituzu. Adibidez -amaitzen du- Azkueren *Morfologia* derrigorrezkoa da”.

### **Bera ere idazle**

Jose Antonio Arana Martixa Gernika-Lumon jaio zen, 1931ko martxoaren 10ean. Zuzenbidean eta Ekonomian lizentziatua da. 1978an Euskaltzaindiko Azkue Bibliotekako zuzendari izendatu zuten. Urtebete beranduago, 1979an, Euskaltzaindiak euskaltzain urgazle aukeratu zuen eta 1988ko urriaren 28an, aldiz, euskaltzain oso. Sarrera hitzaldia Gernikan egin zuen, “Euskaltzaindiko aulkien historiaz hurbiltze bat” gaiari buruz. Aita Villasante orduko euskaltzainburuak erantzun zion. Euskaltzain emeritua da 2006ko uztailaren 20tik.

Argitaratutako lanen artean, hauek aipatuko ditugu: *Música Vasca* (1976); *Elai-Alai, Euskal Herriko lehen koreografia taldea* (1977); *Opera vasca en Vizcaya* (1977); *Bernardo Gabiola* (1980); *Canciones de Navidad. Gabonetako kantak* (1981); *Resurrecion Maria de Azkue* (1983); *Eresoinka. Embajada Cultural Vasca, 1927-1939* (1986); *Basque Music* (1985); *Gernikako Andra Maria Eliza* (1988); *Bibliografia Bonapartiana* (1991).

Aipatutako liburuetatik aparte, beste batzuk ere argitaratu ditu. Horien artean dira “Bidegileak” sailerako prestatutako liburuak, hots, Resurrección M<sup>a</sup> Azkue, Julio Urkixo, Jose A. Donostia, Bonifazio Etxegarai.